

## **BOLETÍN Nº 64 - 31 de marzo de 2017**

- 2. Administración Local de Navarra
  - 2.2. Disposiciones y anuncios ordenados por localidad

### **MENDIGORRÍA**

#### **Aprobación definitiva de Ordenanza general de prevención de contaminación acústica por la utilización de dispositivos sonoros en tareas agrícolas**

El Ayuntamiento Pleno, en sesión extraordinaria celebrada el día 2 de diciembre de 2016, aprobó provisionalmente la Ordenanza general de prevención de contaminación acústica por la utilización de dispositivos sonoros en tareas agrícolas.

El período de información pública se inició con la publicación del anuncio oportuno en el Boletín Oficial de Navarra número 3, de 4 de enero de 2017, y en el Tablón municipal de Edictos.

Durante el plazo de exposición pública se ha presentado una alegación consistente en la reducción de las distancias de los aparatos: 250 m para espantapájaros acústicos y 100 m para los ahuyentadores digitales. La alegación ha sido estimada por el Pleno del Ayuntamiento de la Villa de Mendigorriá en sesión ordinaria de fecha 24 de febrero de 2017, y se ha aprobado la ordenanza; por lo que, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto íntegro, lo que se hace público para general conocimiento.

Mendigorría, 27 de febrero de 2017.–El Alcalde, Iosu Arbizu Colomo.

#### **ORDENANZA GENERAL DE PREVENCIÓN DE LA CONTAMINACIÓN ACÚSTICA PRODUCIDA POR EL USO DE DISPOSITIVOS SONOROS EN LAS TAREAS AGRÍCOLAS**

Artículo 1. Objeto.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Artículo 3. Definiciones de los dispositivos objeto de la presente modificación.

Artículo 4. Competencia administrativa.

Artículo 5. Descripción de los ámbitos en los que tendrá efecto la presente modificación puntual.

Artículo 6. Condiciones de las Residencias Rurales Habituales.

Artículo 7. Distancias mínimas de ubicación de espantapájaros acústicos y ahuyentadores digitales.

Artículo 8. Direccionalidad de los dispositivos espantapájaros acústicos y ahuyentadores digitales.

Artículo 9. Frecuencia de explosión de los dispositivos espantapájaros acústicos y ahuyentadores digitales.

Artículo 10. Cantidad de dispositivos espantapájaros acústicos y ahuyentadores digitales por unidad de superficie.

Artículo 11. Horario de funcionamiento de ambos dispositivos.

Artículo 12. Registro de espantapájaros acústicos y ahuyentadores digitales.

Artículo 13. Generalidades.

Artículo 14. Tramitación del Expediente Sancionador.

Artículo 15. Obligación del infractor.

Artículo 16. Incumplimiento de los requerimientos municipales.

Artículo 17. Generalidades.

Artículo 18. Infracciones Muy Graves.

Artículo 19. Infracciones Graves.

Artículo 20. Infracciones Leves.

Artículo 21. Cuantía de las sanciones.

Artículo 22. Graduación de las sanciones.

Artículo 23. Prescripción de las infracciones.

Artículo 24. Las sanciones establecidas en los artículos precedentes, sólo podrán imponerse tras la incoación del correspondiente expediente sancionador, en el que se dará audiencia al presunto infractor y se regulará según lo establecido en la legislación vigente.

La Ordenanza Municipal sobre Prevención de la Contaminación Acústica de 2 de diciembre de 2016, tiene por objeto la pretensión de poner en marcha la política de ambiental en la lucha contra el ruido y mejorar el ambiente acústico de aquellas zonas degeneradas. Todos tienen el derecho a disfrutar de un medio ambiente adecuado para alcanzar una mejor calidad de vida.

La presente ordenanza surge por la necesidad de contemplar en la regulación local nuevas afecciones al medio ambiente acústico y por extensión, nuevas afecciones a la calidad de vida de los ciudadanos.

Mendigorría es un municipio con tradición agrícola, y se encuentra en prueba de adelantos en el sistema productivo de los frutos que produce, adelantos que no siempre están en consonancia con el respeto al medio ambiente. Con el fin de defender las cosechas contra la amenaza aviar, el agricultor se defiende instalando, entre otros dispositivos, espantapájaros acústicos, así como ahuyentadores digitales. Estos dispositivos pues, son los que mediante fuertes detonaciones o amplificadas cantos de rapaces, tratan de ahuyentar a la avifauna local de la cosecha. El conflicto surge, cuando los vecinos de las zonas más periféricas del casco urbano, así como los residentes en zona rural, ven mermada su calidad de vida debido a las anastomosadas deflagraciones de estos dispositivos, así como las incesantes reproducciones de chillidos de rapaces, tanto durante el día como la noche.

## TÍTULO I

### Disposiciones generales

#### Artículo 1. Objeto.

Esta ordenanza tiene por objeto desarrollar la ordenación legal existente sobre Prevención de la Contaminación.

Acústica recogida fundamentalmente en la Ordenanza General de 2 de diciembre de 2016, en lo que hace referente a la gestión de un ruido ambiental muy peculiar y poco tratado en la legislación estatal, el ruido de los Espantapájaros Acústicos Automáticos y Ahuyentadores Digitales. Estableciendo un marco básico destinado a evitar, prevenir o reducir con carácter prioritario los efectos nocivos, de las citadas detonaciones en el ámbito rural. Completando así el ordenamiento jurídico local, con el fin de crear un consenso en este difícil conflicto.

#### Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Se aplicará al ruido producido por todos aquellos dispositivos generadores de detonaciones automatizadas y de amplificación de cantos de rapaces, a los que estén expuestos los seres humanos, en todo tipo de calificación de suelo, urbanizable, no urbanizable y protegido de cualquier índole, del término municipal de Mendigorría.

#### Artículo 3. Definiciones de los dispositivos objeto de la presente modificación.

A efectos de esta ordenanza se entenderá por:

1. Espantapájaros acústico automático. Todo aquel dispositivo que, mediante una fuerte detonación, tenga la finalidad de asustar a todo tipo de animal salvaje.
2. Ahuyentador digital. Todo aquel dispositivo que, mediante la reproducción amplificada de cantos de diversas aves de presa, tenga como finalidad la misma que el punto anterior.

#### Artículo 4. Competencia administrativa.

Dentro del ámbito de aplicación de esta Ordenanza, corresponde al Ayuntamiento velar por el cumplimiento de la misma, ejerciendo la potestad sancionadora y de inspección, así como la adopción de las medidas cautelares legalmente establecidas.

#### Artículo 5. Descripción de los ámbitos en los que tendrá efecto la presente modificación puntual.

Los ámbitos a los que se protege son los comprendidos dentro de la calificación de Suelo No Urbanizable (cualquiera de sus acepciones), Suelo Urbanizable y Suelo Urbano, a los que hace referencia la Ley 35/2002, de 20 de diciembre. Por lo tanto, la presente ordenanza tiene carácter protector en toda la superficie del término municipal de Mendigorriá.

1. Suelo urbano. A los efectos de la presente, este tipo de suelo englobará a las diferentes aglomeraciones:

A.–Casco urbano de Mendigorriá.

B.–Casco urbano de Muruzábal de Andión.

C.–Casco urbano de Andión.

D.–Camping El Molino.

Aunque se entiende que los dispositivos sonoros, causantes de la contaminación acústica objeto de la presente modificación, sólo están ubicados en Suelo No Urbanizable, lugar natural de ubicación de los cultivos, la proximidad de las áreas de cultivo a las zonas habitadas de los cascos urbanos es tal, que se hace necesaria la protección de los residentes de las zonas periféricas de las citadas aglomeraciones.

2. Suelo urbanizable. Estará en posesión de los mismos derechos que el Suelo Urbano en cuanto se apruebe el programa para el desarrollo de la correspondiente actuación.

3. Suelo No Urbanizable. El mismo se desglosa en:

A.–No Urbanizable Común.

B.–No Urbanizable de Especial Protección.

Además, la presente modificación pretende proteger de este tipo indiscriminado de contaminación acústica, a los espacios naturales, cuya fauna silvestre también se ve afectada por las continuas detonaciones estivales.

#### Artículo 6. Condiciones de las Residencias.

Las viviendas afectadas serán todas las que consten en el Ayuntamiento de Mendigorriá.

Artículo 7. Distancias mínimas de ubicación de espantapájaros acústicos y ahuyentadores digitales.

La distancia mínima a la que se deberá ubicar cualquier dispositivo espantapájaros de fundamento sónico será de 250 metros los espantapájaros acústicos y de 100 metros los ahuyentadores digitales, con respecto a las viviendas a las que hace relación el artículo 6.

Artículo 8. Direccionalidad de los dispositivos espantapájaros acústicos y ahuyentadores digitales.

Con el fin de aumentar la distancia de propagación del ruido generado por estos dispositivos, ambos poseen estructuras en su composición que determinan la dirección de la mayor intensidad sonora. La manera de obtener esta función es mediante la utilización de transformaciones tubulares y forma y estructura de los altavoces.

Para incidir más en la atenuación del ruido en las viviendas afectadas, se evitará la orientación de todos los dispositivos espantapájaros acústicos (cañones espantapájaros) y ahuyentadores digitales hacia la o las viviendas más cercanas.

Artículo 9. Frecuencia de explosión de los dispositivos espantapájaros acústicos y ahuyentadores digitales.

1. Los dispositivos espantapájaros acústicos se regularán para que no produzcan más de 1 detonación cada 7 minutos.
2. Los ahuyentadores digitales, al igual que en el punto anterior, deberán programarse para que no generen las respectivas emisiones acústicas más de 1 vez cada 5 minutos.

Artículo 10. Cantidad de dispositivos espantapájaros acústicos y ahuyentadores digitales por unidad de superficie.

1. La cantidad máxima de espantapájaros acústicos será de 1 dispositivo cada 2,5 hectáreas.
2. En el caso de los ahuyentadores digitales, la cantidad de aparatos a instalar, no será superior a 1 aparato cada 2 hectáreas.

Artículo 11. Horario de funcionamiento de ambos dispositivos.

La actividad de estos aparatos, tanto de detonación como de amplificación de cantos de aves de presa, será estrictamente restringida a horario diurno.

El horario diurno comprenderá desde las 8:00 horas hasta las 22:00 horas, tal y como estipula el artículo 9.º del Decreto Foral 135/1989, de 8 de junio, por el que se establecen las condiciones técnicas a cumplir por las industrias que puedan generar actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas las cuales puedan ser causa de molestias a las personas por ser emisoras de ruidos o vibraciones.

Artículo 12. Registro de espantapájaros acústicos y ahuyentadores digitales.

1. Desde la entrada en vigor de la presente Ordenanza, toda persona física o jurídica que pase a ser poseedor de cualquiera de los aparatos espantapájaros mencionados, deberá registrarlo bajo el formulario que se presenta en el Anexo I.

2. Los propietarios de dispositivos de estas características, tendrán 2 meses de plazo para registrarlos debidamente.

## TÍTULO II

Procedimiento sancionador

### CAPÍTULO I

Responsabilidades

Artículo 13. Generalidades.

1. Las acciones u omisiones que contravengan lo preceptuado en esta Ordenanza generarán responsabilidad de naturaleza administrativa, sin perjuicio de la que pudiera ser exigible en vía penal o civil.

2. Cuando sean varios los responsables y no sea posible determinar el grado de participación de cada uno de ellos en la comisión de la infracción la responsabilidad se exigirá solidariamente.

3. Las responsabilidades derivadas del incumplimiento de las obligaciones señaladas, serán exigibles, no sólo por los actos propios, sino también por los de aquellas personas de quien se deba responder conforme a lo detallado en la legislación vigente y en la presente Ordenanza.

4. Cuando se trate de obligaciones de carácter colectivo, la responsabilidad se atribuirá a la correspondiente comunidad de propietarios.

5. Toda persona natural o jurídica, podrá denunciar ante el Ayuntamiento cualquier infracción de la presente Ordenanza. De resultar temerariamente injustificada la denuncia, serán de cargo denunciante los gastos que origine la inspección.

Artículo 14. Tramitación del Expediente Sancionador.

1. El procedimiento se iniciará de oficio por la propia Administración Municipal, en virtud de la función inspectora y de comprobación, propia de su competencia, o a instancia de parte mediante la correspondiente denuncia. En lo previsto en esta Ordenanza, se estará a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y demás normas concordantes.

2. Con independencias de las facultades inspectoras que legalmente tiene atribuidas, la Policía Local, y de conformidad con lo dispuesto en la legislación vigente, el personal de los Servicios Municipales designados para la realización de las inspecciones y

comprobaciones previstas en esta Ordenanza, y en el resto de la normativa ambiental aplicable, tendrá la consideración de agente de la autoridad.

3. Las personas sujetas al cumplimiento de la presente Ordenanzas están obligadas a prestar toda su colaboración a los inspectores a que se refiere este artículo, a fin de permitir la realización de las correspondientes inspecciones y comprobaciones.

4. El personal en funciones de inspección tendrá, entre otras, las siguientes facultades:

a) Acceder, previa identificación y sin notificación previa, a las instalaciones o ámbitos sujetos a inspección.

b) Requerir información y proceder a los exámenes y controles necesarios que aseguren el cumplimiento de las disposiciones vigentes y de las condiciones de las autorizaciones, licencias o permisos.

c) Comprobar la existencia y puesta al día de la documentación exigible.

d) Requerir, en el ejercicio de sus funciones, el auxilio de los cuerpos y fuerzas de la seguridad del Estado, Comunidad Autónoma o Municipal.

e) Las denuncias que pudieran formular originarán el oportuno expediente sancionador, siguiéndose los trámites oportunos conforme a la legislación vigente.

#### Artículo 15. Obligación del infractor

1. Los infractores están obligados a:

a) La retirada inmediata de los dispositivos ubicados en una localización indebida. A aquellos dispositivos que no sigan las distancias estipuladas en el artículo 8.

b) La regulación correcta de la cadencia de disparo o activación de los dispositivos espantapájaros utilizados, acorde a lo estipulado en el artículo 10.

c) La eliminación de dispositivos que contravengan la densidad máxima permitida de los mismos, según lo estipulado en el artículo 12.

d) Orientar de forma correcta los aparatos instalados, tal y como regula el artículo 9.

2. La exigencia de las medidas reparadoras o restauradoras detalladas en esta Ordenanza, podrán hacerse en el propio procedimiento sancionador o, si fuera necesario, en otro complementario.

#### Artículo 16. Incumplimiento de los requerimientos municipales.

1. Sin perjuicio de la potestad sancionadora, en caso de incumplimiento por los propietarios de los dispositivos, de los deberes que les incumben tras cometer infracción tipificada, tras requerimiento al efecto, se podrá efectuar la ejecución subsidiaria por los Servicios Municipales, por cuenta de los responsables y al margen de las indemnizaciones a que hubiere lugar.

2. No será necesario requerimiento previo, pudiendo procederse de modo inmediato a la ejecución, cuando de la persistencia de la situación pudiera derivarse un peligro inminente para la salud humana, los recursos naturales o el medio ambiente.

## CAPÍTULO II

### Infracciones

Artículo 17. Generalidades.

Los actos u omisiones que contravengan lo establecido en esta Ordenanza tendrán la consideración de infracción administrativa, las cuales se clasifican en leves, graves y muy graves.

Artículo 18. Infracciones Muy Graves.

1. La reincidencia en 2 o más infracciones graves.

Artículo 19. Infracciones Graves.

1. El no quitar, regular la cadencia, orientación y/o densidad de aparatos, cuando haya sido requerido por la autoridad sancionadora, en más de una ocasión.

2. La acumulación de 3 o más de las infracciones leves estipuladas en el artículo siguiente, en una sola inspección.

3. Indicios de falsedad en la declaración de Residencia Rural Habitual, cuando de ello se aprovecha de las ventajas legislativas referentes a la protección acústica a las que hace referencia la presente Modificación Puntual.

4. El incumplimiento de los horarios estipulados en el artículo 11.

Artículo 20. Infracciones Leves.

El incumplimiento del artículo 7, 8, 9, 10, ó 12 de forma independiente.

## CAPÍTULO III

### Sanciones

Artículo 21. Cuantía de las sanciones.

Sin perjuicio de exigir, cuando proceda, las responsabilidades de carácter penal o civil correspondientes, las infracciones a los preceptos de la presente Modificación Puntual serán sancionadas como a continuación se detalla:

1. Infracciones Muy Graves. Sanción entre 601,00 y 6.000,00 euros.

2. Infracciones Graves. Sanción entre 101,00 y 600,00 euros.



a) El no quitar, regular la cadencia, orientación y/o densidad de aparatos, cuando haya sido requerido por la autoridad sancionadora, en más de una ocasión, tendrá una imposición de 200,00 euros.

b) La acumulación de 3 ó más de las infracciones leves estipuladas en el artículo siguiente, en una sola inspección, conllevará una sanción 200,00 euros.

c) Indicios de falsedad en la declaración de Residencia Rural Habitual, cuando de ello se aprovecha de las ventajas legislativas referentes a la protección acústica a las que hace referencia la presente Modificación Puntual, tendrá una imposición de 600,00 euros.

d) El incumplimiento de los horarios estipulados en el artículo 11, conllevará una imposición de 200,00 euros.

3. Infracciones Leves. Imposición de sanciones hasta 100,00 euros.

a) El incumplimiento del artículo 7, 8, 9, 10, ó 12 de forma independiente, se le atribuirá una sanción de 90 euros.

Artículo 22. Graduación de las sanciones.

1. Para graduar la cuantía y alcance de las sanciones se atenderá a la naturaleza de la infracción, reincidencia, así como aquellos otros elementos que puedan considerarse atenuantes o agravantes.

2. A dichos efectos, será considerado reincidente quien hubiere incurrido en una o más infracciones firmes de igual o similar naturaleza en los doce meses anteriores.

3. Tendrá la consideración de circunstancias atenuantes la adopción espontánea, por parte del responsable de la infracción, de medidas correctoras con anterioridad a la incoación del expediente sancionador.

Artículo 23. Prescripción de las infracciones.

La prescripción de las infracciones se producirá por el transcurso de los siguientes plazos:

a) Las infracciones leves prescriben a los 6 meses.

b) Las infracciones graves prescriben a los 2 años.

c) Las infracciones muy graves prescriben a los 3 años. Estos plazos comenzarán a contar a partir de la comisión del hecho sancionable o desde que se tuvo conocimiento de los mismos.

Artículo 24. Las sanciones establecidas en los artículos precedentes, sólo podrán imponerse tras la incoación del correspondiente expediente sancionador, en el que se

dará audiencia al presunto infractor y se regulará según lo establecido en la legislación vigente.

## ANEXO I

Registro de residencia rural habitual (PDF).

## ANEXO II

### Definiciones

1. Espantapájaros acústicos automáticos. Todos aquellos dispositivos que mediante una explosión, detonación o cualquier dispositivo que produzca una liberación brusca de energía generando un incremento instantáneo de la presión del aire y por ello un desmesurado estruendo, que tengan la finalidad de ahuyentar a la avifauna.
2. Ahuyentadores digitales. Cualquier dispositivo que amplifique de forma significativa el canto de diferentes aves de presa, emitiendo un ruido que asuste a la avifauna del lugar.

Contra dicho acuerdo, que es firme en vía administrativa, podrán interponerse los siguientes recursos:

Recurso contenciosoadministrativo ante la Sala correspondiente del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Foral de Navarra, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Navarra, ello sin perjuicio de lo establecido en el artículo 14 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción ContenciosoAdministrativa, respecto a la competencia territorial de los juzgados y tribunales.

Recurso potestativo de reposición ante el Ayuntamiento Pleno en el plazo de un mes, contando desde el día siguiente a su publicación el Boletín Oficial de Navarra o a la recepción de la notificación. Si se opta por interponer recurso potestativo de reposición no podrá interponerse recurso contenciosoadministrativo hasta que el de reposición sea expresamente resuelto o bien se haya producido la desestimación presunta del mismo por el transcurso de un mes contado a partir del día siguiente a su presentación sin haber recibido respuesta.

Recurso extraordinario de revisión, en los términos del artículo 125 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Finalmente, podrá ejercitarse cualquier otro medio de impugnación que se considere procedente.

Código del anuncio: L1702577

## **64. ALDIZKARIA - 2017ko martxoaren 31**

- 2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA
  - 2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

### **MENDIGORRIA**

#### **Ordenantza orokorra, Nekazaritza lanetan gailu soinudunak erabiltzeak ekarritako kutsadura akustikoari aurrea hartzeko. Behin betiko onespena**

Mendigorriko Udalak, 2016ko abenduaren 2ko osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Ordenantza orokorra, Nekazaritza lanetan gailu soinudunak erabiltzeak ekarritako kutsadura akustikoari aurrea hartzeko.

Erabaki hori jendaurrean jarri zen, hasierako onespenaren iragarkia argitaratuz 2017ko 3. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 4an, eta Udalaren iragarki oholean.

Jendaurrean egondako epean, aparatuen distantziak txikitzea eskatzen duen alegazio bat aurkeztu da: 250m txori-uxatzaile akustikoetarako eta 100m uxatzaile digitaletarako. Alegazioa Mendigorriko Udaleko ohiko osoko bilkuran onartu da 2017ko otsailaren 24an, eta ordenantza onetsi da. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan jasotakoari jarraikiz, testua osorik argitaratzen da, ezagutzera emateko.

Mendigorrian, 2017ko otsailaren 23an.–Alkatea, Iosu Arbizu Colomo.

#### **ORDENANTZA OROKORRA, NEKAZARITZA LANETAN GAILU SOINUDUNAK ERABILTZEAK EKARRITAKO KUTSADURA AKUSTIKOARI AURREA HARTZEKO**

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Aplikazio-eremua.
3. artikulua. Aldaketa honek jasotzen dituen gailu soinudunen definizioa.
4. artikulua. Eskumen administratiboa.
5. artikulua. Aldaketa xehakatu honek eragingo dituen esparruen deskribapena.
6. artikulua. Ohiko landa-bizilekuen egoera.
7. artikulua. Txori-uxatzaile akustikoen eta uxatzaile digitalen kokalekuen gutxieneko distantzia.
8. artikulua. Txori-uxatzaile akustikoen eta uxatzaile digitalen kokalekuen norabidea.

9. artikulua. Txori-uxatzaile akustikoen eta uxatzaile digitalen eztanda-maiztasuna.

10. artikulua. Txori-uxatzaile akustikoen eta uxatzaile digitalen kopurua azalera unitateko.

11. artikulua. Bi gailuen funtzionamendu ordutegia.

12. artikulua. Txori-uxatzaile akustikoen eta uxatzaile digitalen erregistroa.

13. artikulua. Ikuspegi orokorra.

14. artikulua. Zehapen espedientearen tramitazioa.

15. artikulua. Arau-hauslearen betebeharra.

16. artikulua. Udal errekerimenduak ez betetzea.

17. artikulua. Ikuspegi orokorra.

18. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

19. artikulua. Arau-hauste larriak.

20. artikulua. Arau-hauste arinak.

21. artikulua. Zehapenen zenbatekoa.

22. artikulua. Zehapenen mailakatzea.

23. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.

24. artikulua. Aurreko artikuluetan definitutako zehapenak soilik ezartzen ahalko dira kasuan kasuko espediente zehatzaileari behin hasiera emanda eta horren bidez ustezko arau-hausleari entzunaldia emanez. Indarrean dagoen legeriaren arabera arautuko da.

Kutsadura akustikoari aurrea hartzeari buruzko Udal Ordenantzak (2016ko abenduaren 2koa), helburu du ingurumen politika martxan jartzea, endekatutako eremuetan giro akustikoa hobetzeko eta zarataren aurka borroka egiteko. Herritar guztiek dute bizi kalitate hobea erdiesteko ingurumen egoki batez disfrutatzeke eskubidea.

Ingurumen akustikoan, eta ondorioz, herritarren bizi kalitatean eragina duten afekzio berriak tokiko araudian jasotzeko beharrek eragin dute ordenantza hau sortzea.

Mendigorria nekazaritza-tradizioko udalerrria da eta momentu honetan fruituen produkzio sisteman emandako aurrerapenak frogatzen ari da. Aurrerapen hauek, ordea, beti ez datoz bat ingurumenarekiko errespetuarekin. Uzta hegaztien erasoetatik babesteko, nekazaria txori-uxatzaile akustikoak eta uxatzaile digitalak erabiliz defendatzen da. Gailu hauekin detonazio handiak eginez, bertako abifauna uztatik uxatu nahi da. Gatazka sortzen da herrigunetik urrunen dauden eremuetako bizilagunek, baita landa eremukoek ere, haien bizi kalitatea kaltetua ikusten dutenean gailu hauen

deflagrazio anastomasatuen eta harraparien oihu etengabeen ondorioz, bai egunez, bai gauzez.

## I. TITULUA

Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honek helburu du kutsadura akustikoaren prebentzioari buruz dagoen lege-araudia garatzea, nagusiki ordenantza orokorrean jasoa dagoena (2016ko abenduaren 2koa). Ordenantza hau aitzindaria da txori-uxatzaile akustikoek eta uxatzaile digitalek sortzen duten zarata kudeatzen: ingurumen zarata oso berezia eta estatuko legeriak gutxi landu duena. Horrela bada, aipatu detonazioek landa eremuan eragindako ondorio kaltegarriak eragozteko, horiei aurre hartzeko eta murrizteko oinarrizko marko bat ezartzen du ordenantzak. Honen bidez tokiko ordenamendu juridikoa osatu nahi da, gatazka zail honetan adostasuna lortze aldera.

### 2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Detonazioa automatizatuak eragiten dituzten gailuek eta txori-kantuak anplifikatzen dituztenek sortzen duten zaratek gizakiari eragiten diotenean aplikatuko da ordenantza, Mendigorriko udalerriko lurzoru kalifikazio orotan, urbanizagarri zein urbanizaezinetan.

### 3. artikulua. Aldaketa honek jasotzen dituen gailuen definizioa.

Ordenantza honen ondorioetarako, hona zer diren:

1. Txori-uxatzaile akustiko automatikoa. Detonazio gogor baten bidez animalia basati oro uxatzeko helburua duen edozein gailu.

2. Uxatzaile digitala. Hegazti harrapari ezberdinen kantu anplifikatuak birsortuz aurreko puntuko helburu bera erdietsi nahi duen gailu oro.

### 4. artikulua. Eskumen administratiboa.

Ordenantza honen aplikazio-eremuan Udalari dagokio berau betearaztea, ikuskaritza eta zehapen ahalmena horretarako baliatuz, bai eta legez ezarritako kautelazko neurriak erabiliz ere.

### 5. artikulua. Aldaketa xehakatu honek eragingo dituen esparruen deskribapena.

Babesten diren eremuak kalifikazio hauek dituztenak dira: zoru urbanizaezina (bere adiera guztietan), zoru urbanizagarria eta hiri lurzorua, abenduaren 20ko 35/2002 Legeak erreferentzia egiten diena. Beraz, ordenantza honek Mendigorriko udalerriguztiaren azalera du izaera babesgarria.

1. Hiri lurzorua. Honakoaren ondorioetarako, lurzoru mota honek hiri-aglomerazio hauek barnebilduko ditu:

- a) Mendigorriko herrigunea.
- b) Muruzabal Andiongo herrigunea.
- c) Andiongo herrigunea.
- d) El Molino campinga.

Kutsadura akustikoa eragiten duten gailu soinudunak lurzoru urbanizaezinean daudela ulertzen bada ere (labore-eremuen kokaleku naturalean, hain zuzen), labore-eremuen eta herriguneen arteko gertutasunak beharrezko egiten du aipatu aglomerazioetako periferietan dauden bizilagunak babestea.

2. Lurzoru urbanizagarria. Hiri lurzoruak dituen eskubide berdinen jabe izanen da, dagokion jarduketaren garapenerako programa onetsi bezain laster.

3. Lurzoru urbanizaezina. Mota hauek daude:

- a) Urbanizaezin arrunta.
- b) Babestu beharreko urbanizaezin berezia.

Aldaketa honek, gainera, bereizketarik egiten ez duen kutsadura akustikotik babestu nahi ditu naturguneak, basa faunak ere udaldiko detonazio etengabeak pairatzen baititu.

6. artikulua. bizilekuen ezaugarriak.

Eragindako etxebizitzak Mendigorriko Udalak jasota dituen guztiak izanen dira.

7. artikulua. Txori-uxatzaile akustikoen eta uxatzaile digitalen kokalekuen gutxieneko distantzia.

Hauek dira gailuak jartzeko errespetatu behar diren gutxieneko distantziak, betiere 6. artikuluan jasotakoari jarraiki: txori-uxatzaile akustikoak etxebizitzetatik 250m-ra eta uxatzaile digitalak etxebizitzetatik 100m-ra.

8. artikulua. Txori-uxatzaile akustikoen eta uxatzaile digitalen kokalekuen norabidea.

Zarataren hedadura ahalik eta gehien handitzeko helburuz, bi gailu hauek soinu intentsitate handienaren norabidea zehazteko berariazko egiturak dituzte. Funtzio hau lortzeko eraldaketa tubularrak egiten dira eta bozgorailuen forma eta egitura ere eraldatzen dira.

Eraginpeko etxebizitzetan zarata ahalik eta gehien arintze aldera, txori-uxatzaile akustiko guztiak (txori-uxatzaile kanoiak) eta uxatzaile digitalak, ez dira gertuen dauden etxebizitzaren (edo etxebizitzaren) norabidean jarriko.

9. artikulua. Txori-uxatzaile akustikoen eta uxatzaile digitalen eztanda-maiztasuna.

1. Txori-uxatzaile akustikoak 7 minuturo detonazio bat baino gehiago egin ez dezaten erregulatuko dira.

2. Uxatzaile digitalak, 5 minuturo emisio akustiko bat baino gehiago egin ez dezaten erregulatuko dira, aurreko puntuan adierazi bezala.

10. artikulua. Txori-uxatzaile akustikoen eta uxatzaile digitalen kopurua azalera unitateko.

1. Txori-uxatzaile akustikoak: gehienez ere gailu bat 2,5 hektareako.

2. Uxatzaile digitalak: gehienez ere gailu bat 2 hektareako.

11. artikulua. Bi gailuen funtzionamendu ordutegia.

Gailu hauek, detonazioak zein hegazti harraparien kantu anplifikatuak, egunez bakarrik erabiliko dira ezinbestean.

Eguneko ordutegia 8:00etatik 22:00etara izanen da, ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuko 9. artikulua zehaztu moduan; honen bidez, jarduera gogaikarriak, osasungaitzak, kaltegarriak eta arriskutsuak sor ditzaketen industriek bete beharreko baldintza teknikoak ezartzen dira, izan ere, pertsonentzako gogaikarriak izan baitaitezke zaratengatik edo dardarengatik.

12. artikulua. Txori-uxatzaile akustikoen eta uxatzaile digitalen erregistroa.

1. Aipatu txori-uxatzaile gailuak dituen pertsona fisiko edo juridiko orok gailua erregistratu beharko du I. eranskinean dagoen eskabidea aurkeztuz, ordenantza honek indarra hartzen duen momentutik.

2. Ezaugarri hauek dituzten gailuen jabeek bi hilabeteko epea izanen dute behar bezala erregistra ditzaten.

## II. TITULUA

Zehatzeko prozedura

### I. KAPITULUA

Erantzukizunak

13. artikulua. Ikuspegi orokorra.

1. Ordenantza honek zehaztu betebeharrak ez betetzeak izaera administratiboa duten erantzukizunak eragingo dituzte, bide penal edo zibileko eskaera ukatu gabe.

2. Erantzuleak bat baino gehiago direnean eta ezin bada arau-haustean haietako bakoitzaren parte-hartze maila zehaztu, erantzukizun solidario eskatuko zaie.

3. Aipatu betebeharrak ez betetzeagatik eratorritako erantzukizunak ez dira soilik norberaren egintzengatik eskatzen ahalko, baizik eta ordenantza honetan eta indarreko legeriaren arabera erantzukizuna duten pertsonen ere eskatzen ahalko zaie.

4. Betebeharrak izaera kolektibokoak direnean, erantzukizuna kasuan kasuko jabeen elkarteara izanen da.

5. Pertsona natural edo juridiko orok ordenantza honetako edozein arau-haustegatik salaketa jartzen ahalko du. Salaketa dagoenetan, ausarkeriaz arrazoitua bada, salatzailearen gain geratuko dira ikuskapenak sortzen dituen gastuak.

14. artikulua. Zehapen espedientearen tramitazioa.

1. Prozedura udal administrazioak berak abiatuko du, ofizioz, ikuskatze eta egiaztatze eginkizunaren arabera, haren eskumenekoa baita, edo alderdi batek eskaturik abiatzen ahal da, salaketa bidez. Ordenantza honetan aurreikusitakoak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeari eta bat datozen gainerako arauak ezarritakoari men eginen die.

2. Ordenantza honetan eta aplikagarria den gainerako ingurumen araudian aurreikusitako ikuskapenak eta egiaztapenak egiteko, udaltzaingoko langileen artean zeregin horretarako izendatutako langileak agintaritza agentetzat hartuko dira, udaltzaingoari legeak ematen dion ahalmen ikuskatzailearen kaltetan izan gabe eta indarreko legeriak ezarritakoaren arabera.

3. Ordenantza hau betetzera behartutako pertsonak artikulua honetan aipatzen diren ikuskatzaileekin lankidetzan aritzera behartuta daude, kasuan kasuko ikuskapen eta egiaztapenak egin daitezten.

4. Ikuskaritza lanetan ariko diren langileek, besteak beste, ahalmen hauek izanen dituzte:

a) Ikuskapena egingo den instalazioetara eta eremuetara sartzea, identifikatu ondoren eta aldeztu aurretik jakinarazi gabe.

b) Informazioa eskatzea eta beharrezko diren azterketa eta kontrolei ekitea, indarreko xedapenak eta baimenen edo lizentzien baldintzak bete daitezten.

c) Legez eskatzen den dokumentazioaren jabe direla eta dokumentazioa eguneratua dagoela egiaztatzea.

d) Bere eginkizunak betetzean Estatuko, Foru Komunitateko edo Udaleko segurtasun indarren laguntza eskatzea.

e) Kasuan kasuko zehapen-espedientea irekiz bideratuko dira salaketak, indarreko legerian ezarritako izapideei jarraiki.

15. artikulua. Arau-hauslearen betebeharra.

1. Arau-hausleek betebeharrak hauek dituzte:



- a) Kokaleku desegokian paratutako gailuak berehala kentzea, 8. artikuluan ezarritako distantziak betetzen ez badituzte.
- b) Txori-uxatzaile gailuen aktibazio edo tiro-kadentziaren erregulazio egokia egitea, 10. artikuluan ezarritakoari jarraiki.
- c) Baimendutako gailuen gehienezko dentsitatea gainditzen duten gailuak kentzea, 12. artikuluan ezarritakoari jarriki.
- d) Jarritako gailuak norabide egokian paratzea, 9. artikuluan ezarritakoari jarriki.

2. Ordenantzan zehaztutako neurri zuzentzaileak edo konpontzaileak hartzea zehapen prozeduraren bidez eskatzen ahalko da, edo beharrezkoa balitz, beste prozedura osagarri baten bidez.

16. artikulua. Udal errekerimenduak ez betetzea.

1. Gailuen jabeek arau-haustea egiteagatik dagozkien betebeharrak beteko ez balituzte, horretarako errekerimendua egin ondoren udal zerbitzuek betearazpen subsidiarioari ekingo diote, erantzule direnen kargura; hori guztia, zehapen ahalmenaren kaltetan izan gabe eta egon litezkeen kalte-ordainak ukatu gabe.

2. Egoera baten iraunkortasunak gizakien osasunerako, baliabide naturaletarako edo ingurumenerako berehalako arriskua ekar badezake, ez da beharrezkoa izango alde zuzeneko errekerimendurik eta exekuzioari berehala ekiten ahalko zaio.

## II. KAPITULUA

### Arau-haustek

17. artikulua. Ikuspegi orokorra.

Ordenantza honetan ezarritakoaren aurkako eginak eta ez eginak arau-hauste administratibo izanen dira, horrela sailkatuz: arinak, larriak eta oso larriak.

18. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

1. Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

19. artikulua. Arau-hauste larriak:

1. Gailuen kadentzia, norabidea edo dentsitatea ez erregulatzea edo gailua ez kentzea, agintaritza zehatzaileak behin baino gehiagotan errekerimendua egin ondoren.

2. Ikuskaritza bakar batean hurrengo artikuluan jasotzen diren 3 arau-hauste arin edo gehiago egitea.

3. Landa eremuko ohiko bizilekuaren aitortenean faltsutze zantzuak ikustea, aldaketa xehakatu honek aditzera ematen dituen babes akustikoari buruzko lege abantailak baliatzeko.

4. 11. artikuluan ezarritako ordutegiak ez betetzea.

20. artikulua. Arau-hauste arinak.

7, 8, 9, 10 edo 12 artikulua modu independentean ez betetzea.

### III. KAPITULUA

Zehapenak

21. artikulua. Zehapenen zenbatekoa.

Aldaketa xehakatu honen arau-hausteen isunak jarraian adierazi moduan zehatuko dira, kasuan kasuko izaera zibil edo penaleko erantzukizuna eskatzea ukatu gabe, bidezkoa denean:

1. Arau-hauste oso larriak. 601,00 eta 6.000,00 euro bitarteko isuna.

2. Arau-hauste larriak. 101,00 eta 600,00 euro bitarteko isuna.

a) Gailuen kadentzia, norabidea edo dentsitatea ez erregulatzea edo gailua ez kentzea, agintaritzaz zehatzaileak behin baino gehiagotan errekerimendua egin ondoren, 200,00 euroko isuna.

b) Ikuskaritza bakar batean hurrengo artikuluan jasotzen diren 3 arau-hauste arin edo gehiago egitea, 200,00 euroko isuna.

c) Landa eremuko ohiko bizilekuaren aitortzearen faltsutze zantzuak ikustea, aldaketa xehakatu honek aditzera ematen dituen babes akustikoari buruzko lege abantailak baliatzen direlako, 600,00 euroko isuna.

d) 11. artikuluan zehaztutako ordutegiak ez betetzea, 200,00 euroko isuna.

3. Arau-hauste arinak. 100,00 euro arteko isuna ezartzea.

a) 7, 8, 9, 10 edo 12 artikuluetako edozein ez betetzea, 90 euroko isuna.

22. artikulua. Zehapenen graduazioa.

1. Isunen kopurua eta irismena mailakatzeko arau-haustearen izaerari eta erreparatuaren erreparatuko zaio, baita aringarritzat edo astungarritzat jo daitezkeen elementuei ere.

2. Ondorio horietarako, berrerorlea izango da arau-hauste irmoa edo antzeko izaerako arau-haustea behin edo behin baino gehiagotan egin duena, aurreko 12 hilabeteetan zehar.

3. Erantzunbeharraren aringarria izanen da arau-haustearen egileak, bere kabuz, neurri zuzentzaileak hartzea zehapen espediente ireki baino lehen.

23. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.

Arau-hausteak epe hauek igarota preskribituko dira:

- a) Arau-hauste arinek 6 hilabeteren buruan preskribitzen dute.
- b) Arau-hauste larriak 2 urteren buruan preskribitzen dute.
- c) Arau-hauste oso larriek 3 urteren buruan preskribitzen dute. Epe hauek zehagarri den gertakaria gauzatzen den momentutik edo horren berri izan denetik kontatzen hasiko dira.

24. artikulua. Aurreko artikuluetan definitutako zehapenak soilik ezartzen ahalko dira kasuan kasuko espediente zehatzaileari behin hasiera emanda eta horren bidez ustezko arau-hausleari entzunaldia emanaz. Indarrean dagoen legeriaren arabera arautuko da.

## I. ERANSKINA

Ohiko landa-bizileku erregistroa (PDFa).

## II. ERANSKINA

### Definizioak

1.–Txori-uxatzaile akustiko automatikoa. Eztanda bidez abifauna uxatzea helburu duen gailu oro: detonazioa edo bat-bateko energia askatuz airearen presioan instanteko gehikuntza eragin eta ondorioz, danbada ikaragarria egiten duen edozein gailu.

2.–Uxatzaile digitala. Hegazti harraparien kantua modu esanguratsuan anplifikatzen duen gailu oro, tokiko abifauna izutzeko moduko zarata eginez.

Akordio honen aurka, bide administratiboan irmoa dena, honako errekurtsuak aurkez daitezke:

Administrazioarekiko auzi-errekurtsua Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko dagokion Salari zuzendua, hura Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. artikuluan ezarritakoa galarazi gabe.

Berraztertze errekurtsua Udalari berari zuzendua, honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean. Berraztertze errekurtsua jartzea erabakitzen bada, ez da zilegi administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztea, errekurtsu hau espresuki ebatzi arte edo ustezko ezespina gertatu arte, errekurtsuaren ebazpena jakinarazi gabe hilabetetik gora iragategatik.

Berraztertze errekurtsu berezia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 125. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Amaitzeko, zilegi jotzen den beste edozein bidetik inpu gnazioa egiten ahalko da.

Iragarkiaren kodea: L1702577